



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2024KO MARTXOAREN 6AN BASABURUKO UDALAK** **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko martxoaren 6an, arratsaldeko 17:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Julen Beunza, Micaela Elizalde eta Iker Isiegas.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Javier Auza eta M<sup>a</sup> Mar Ansorena.

Bertaratu da baita ere Martin Perurena Belza.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.-Taxi baimenaren behin betiko onespena.**

Alkateak azaltzen du ebazpen bidez onartu zela behin behinean taxi baimenaren esleipena Martin Perurena Belzaren alde. Baldintza pleguaren arabera gehieneko hiru hilabeteko epean aurkeztu behar zuen aseguruua, autoaren dokumentazioa eta ekarpen ekonomikoa ordaindu baimena behin betikoz onartzeko.

Dokumentazio hori otsailaren 29an aurkeztu zuen. Hortaz baldintza pleguko 10. Xedearen arabera behin betiko esleipena onartu behar du batzarrak.

Bildutakoek hortaz aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**Behin betiko onartu taxi baimenaren esleipena Martin Perurena Belzaren alde, eta baimen hau zerbitzua emango duen 4106MGS matrikuladun autoarekin lotzea. Autoa KIA markako 5 eserlekudun auto elektrikoa da eta pleguan zehazten ziren baldintza teknikoak betetzen ditu.**

**Onartzen da ere behin betikoz berak aurkeztutako zerbitzuen proposamena, eta aurkeztutako proposamen ekonomikoa 600 eurokoa.**

Gai ordenean sartu gabe badaude beste bi gai premiazkoa direnak aztertzeko, alde batetik, PSTD proiektuen onespena eta Cederna Garalurrekin sinatu behar den hitzarmena eta bestetik 0-3 eskolan inbertsioak egiteko dirulaguntzaren onespena eta bertan sartu behar den gastua eta proiektua. Bildutakoek gai zerrendan sartzea onartzen dute aho batez.

### **PSTD proiektuen onespena eta lankidetzaren hitzarmena.**

Alkateak adierazten die bildutakoei, Ihabengo pasadena guneko egokitzapena eta Jaunsaratsko baso sorgindua egiteko proiektuak sartu direla dakiten moduan, Europako funtsekin diruz lagunduko dira eta tramitazioaren baitan, iruzurraren aurkako plana onartu zen eta orain aurkeztutako proiektuak eta Cederna Garalurrekin sinatu behar den lankidetzaren hitzarmena onartu behar dira.

Onartu behar den akordio hauek litzake, aipatu bezala lehenik proiektuak onartu eta ondoren lankidetzaren hitzarmena onartu.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Ihabengo pasadenaren gunea egokitzeko proiektua eta Jaunsaratsen Baso Babestua sortzeko proiektua onartzea, -Sakama- Ultzamalea jasangarritasun turistikoaren lurraldearen planean (2023-2026) sartzeko. Europar Batasunaren EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSAK finantzatuta .

Ihabengo pasadena gunea egokitzeko proiektua *izeneko memoria baloratua Basaburuko Udalak sustatu du eta Mediodes arkitektoak 2024ko urtarrilean idatzi. Bertan adierazten diren ekintzak dira, pasaderaren sarbidea egokitzea, jolasgune bat sortzea, itxidura begetala jartzea komun lehor batekin batera. Obra haun aurrekontua 97.314,91 eurokoa da.*

*Bestetik Jaunsaratsen Baso Babestua sortzeko proiektua Basaburuko Udalak sustatu du ere eta 2024ko urtarrilean Mediodes arkitektoek idatzi dute. Proiektuan sartzen diren iharduerak dira bertan dauden sendak baliatuz baso babestua sortzea aritzak baliatuz turismora bideratutako egitasmoen barruan eta 49.997,30 euroko aurrekontuarekin.*

*Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez , Udalbatzako kideen gehiengo osoa osatzen dutenez, ERABAKI DU:*

**LEHENENGOA.-** *Basaburuko Udalak sustatutako Ihabengo pasadena gunea egokitzeko proiektua izeneko eta Jaunsaratsen Baso Babestua sortzeko proiektua izeneko proiektuak onartzea Mediodes arkitektoak egindakoak, biak eta 2024ko urtarrileko datarekin idatzitakoak, bertan proiektuen deskribapena eta aurrekontu zehatza jasoko dituelarik..*

*BIGARRENA.- Ihabengo pasadena gunea egokitzeko izeneko obra eta Jaunsaratsen Baso Babestua sortzeko proiektuak Plazaola-Sakama- Ultzamalea jasangarritasun turistikoaren lurraldearen planean (2023-2026) sartzeko eskaera egitea.*

*HIRUGARRENA. – Alkateari, ahalmena ematea eskaera egiteko eta horretarako beharrezkoak diren kudeaketak egiteko.*

*LAUGARRENA.- Erabaki hau Cederna Garalur elkarteari helaraztea*

Bestetik Cedernarekin sinatu behar den hitzarmena ere onartu behar da eta alkatea ahalmenu sinatzeko, hortaz bildutakoek aho batez ere ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Basaburuko Udala eta Cederna Garalur elkartearen arteko hitzarmenaren sinadura onartzea, Plazaola-Sakama- Ultzamalea jasangarritasun turistikoaren lurraldearen planean (2023-2026) sartzeko. Europar Batasunaren EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSAK finantzatuta..

*Udalbatzak, bertaratutako zinegotzik aho batez, Udalbatzako kideen gehiengo osoa osatzen dutenez, ERABAKI DU:*

*LEHENENGOA.- Basaburuko Udalak eta Cederna-Garalur elkartearen arteko hitzarmenaren sinadura onartzea, Plazaola-Sakama- Ultzamalea jasangarritasun turistikoaren lurraldearen planean (2023-2026) sartzeko .*

*BIGARRENA.- Alkateari, edo haren legezko ordezkariari, ahalmena ematea dagokion hitzarmena sinatzeko eta horretarako beharrezkoak diren kudeaketak egiteko.*

*HIRUGARRENA.- Erabaki hau Cederna Garalur elkarteari helaraztea.*

### **0-3 eskolan inbertsioak egiteko laguntza eta proiektuaren onespena.**

Alkateak azaltzen du 2023/204E ebazpenaren baitan haur eskoletan inbertsioak egiteko laguntzak argitaratu zirela 2024ko otsailaren 19an. Laguntza hauetarako proposatu dute eskolatik, aurreko urtean onartu ez zuten proiektua berriro aurkeztea. Proiektuaren gastua 4000 euro ingurukoa da BEZ barne eta bertan sartzen da patioaren egokitzapena, lurra zolatu eta teilatu hegalari kanalona jartzea.

Diru laguntza aurkezteko epea martxoaren 20an bukatzen da eta oinarrien 5. Baldintzan zehazten da, proiektua, obra egiteko konpromezua, obraren gastua eta diru laguntza eskaera onartu behar direla batzarrean.

Hortaz bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Basaburuko Ttikiena haur eskolan inbertsioak egiteko proiektua onartu, proiektu horretan sartu den egitasmoa patioa egokitzea delarik.
- Onartu ere proiektua egiteko gastua Zulaga Obras y Proyectos S.L enpresak aurkeztutako aurrekontuaren arabera.
- Bestetik proiektu hau 2023/204E ebazpenaren baitan xedatua dagoen dirulaguntzara aurkeztea eta diru laguntzaren baldintzak onartu.

- 0-3 eskolako obrak burutzeko konpromezua adieraztea diru laguntza jasotzekotan eta finantzatu gabeko gastua bere gain hartzea ere onartu.
- Bukatzeko 0-3 eskolan ondorengo urtetan egiten diren obrak edo azpiegituren egokitzapena Nafarroako Komunitateak eskolan lehen zikloa arautzen duen 2007/28 Foru Dekretura egokituko direnaren konpromezua onartzea.
- Erabaki hau Hezkuntza Departamentura helaraztea diru laguntzaren beste dokumentazioarekin batera.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 17:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.